# ISEI - IVEI

## Rs1.2.5. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4. MAILAN: ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUN KULTURA.

ISEI·IVEI

**Edizioa: 2014ko martxoa**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LAN TALDEA**
Araceli de Francisco
Inmaculada Tambo
José Ramón Ugarriza
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Mª Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
Eduardo Ubieta

**Sarrera** **4**

**Rs1.2.5.1 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzian* eta konpetentziaren dimentsioetan (*Ezaguera zientifikoaren ulermena, Naturaren errealitatearen azalpena, Ikerkuntza zientifikoaren funtsezko ezaugarrien azterketa eta Ezaguera zientifikoen erabilera erabaki-hartzeetan*) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.** **6**

**Rs1.2.5.2 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.** **7**

**Rs1.2.5.3 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuzioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).** **8**

**Rs1.2.5.4 taula: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-Ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.** **9**

**Rs1.2.5.4 grafikoa: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-Ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.** **10**

## ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUN KULTURARAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009 eta 2913[1].

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzian* izan duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009 eta 2013. urteetan gauzatu ziren Ebaluazio Diagnostikoetan lortutako emaitzak dira. Ebaluazioan 250 puntuko batez bestekoa finkatu da, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila.

Emaitzak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: irakasteredua[2], eta hezkuntza-sarea[3] (geruzak), ikasleen sexua, irakasmailarekiko egokitasuna (jaioturtea eta irakasmaila), gurasoen ikasketak, familiako hizkuntza eta probakoa, jaiolekua eta Indize Sozio-ekonomikoa eta Kulturala (ISEK).

2013an, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean, % 50,1ek ikastetxe publikoetan ikasten du, eta % 49,9k ikastetxe itunduetan. Proportzio hau 2009tik hona mantendu da, ia aldaketarik gabe.

2013an, *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzian* batez besteko puntuazioa 236 puntukoa izan da, 2009. urtean (250) baino 14 puntu baxuagoa. Sexuaren arabera, batez besteko puntuazioen bilakaera 2009-2013 aldian 14 puntuko jaitsiera izan da, bai nesken eta bai mutilen kasuan.

2013. urtean, neskek emaitza berdintsuak lortzen dituzte ebaluatutako lau dimentsioetan (253 eta 255 bitarteko puntuazioak), eta bai mutilek ere (245 eta 247 bitarteko puntuazioak). Nesken puntuazioak mutilenak baino altuagoak dira dimentsio guztietan, eta alderik handiena *Ezaguera zientifikoen erabilera erabaki-hartzeetan* dimentsioan izan da.

2013ko Ebaluazio Diagnostikoan, *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzian* ikasleen banaketa errendimendu-mailen artean honako hau izan da, ehuneko handienetik txikienera: erdi-mailan ikasleen % 54,7 egon da, hasierako mailan, ikasleen % 25,6 eta maila aurreratuan, % 19,8. Maila aurreratuan eta erdi-mailan nesken ehunekoa mutilena baino 4,3 puntu eta 4,7 puntu handiagoa izan da, hurrenez hurren. Hasierako mailan mutilen ehunekoa 9 puntu handiagoa izan da neskena baino. 2009-2013 aldian, ikasleen ehunekoaren bilakaera igo da hasierako mailan (8,6 puntu) eta erdi-mailan (2 puntu) eta maila aurreratuan (10,6 puntu) jaitsi da.

2013ko geruzetako batez besteko puntuazioak aztertzen baditugu, puntuaziorik altuena itunpeko A ereduan (259) izan dela ikus daiteke, eta gero itunpeko D (241) eta B (236)

[1] Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009 eta 2013. Txosten orokorra. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm
[2] EAEn hiru irakasteredu daude: A eredua (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredua (irakas-hizkuntza euskara).
[3] EAEn bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.

ereduetan. Sare publikoaren barruan, puntuaziorik altuenak D (233) eta A (230) ereduetan izan dira, eta puntuaziorik baxuena, B ereduan (222). 2009-2013 aldian, ikasleen batez besteko puntuazioen bilakaera negatiboa izan da geruza guztietan; A eredu publikoan 7 puntuko jaitsiera egon da, eta 12-16 puntuko jaitsiera gainerako geruzetan.

2013an, *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzian* erdi-mailan eta maila aurreratuan ehuneko handiena duten ikasleen profila honako hau da: adinagatik dagokion irakasmailan dago (% 76,7), autoktonoa da (% 75) eta ISEK indize altua du (% 81,6). Erdi-mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila hau da: irakasmailarik errepikatu du (% 46,1), etorkina da, (% 64,5), eta ISEK indize baxua du (% 63,8). 2009-2013 aldian, euskal ikasleen ezaugarriak ez dute aldaketa handirik jaso, bi kontutan izan ezik: gurasoen ikasketa maila handitu egin da, eta halaber, proba euskaraz egiten duten ikasleen proportzioa handitu da euskara familia-hizkuntza bezala erabiltzen ez duten ikasleen artean.

## Rs1.2.5.1 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleek *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzian* eta konpetentziaren dimentsioetan (*Ezaguera zientifikoaren ulermena, Naturaren errealitatearen azalpena, Ikerkuntza zientifikoaren funtsezko ezaugarrien azterketa eta Ezaguera zientifikoen erabilera erabaki-hartzeetan*) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.**

| | | 2009 | 2013 |
|---|---|---|---|
| **Guztira** | Guztira | **250** | **236** |
| | Neskak | 255 | 241 |
| | Mutilak | 245 | 231 |
| *Ezaguera zientifikoaren ulermena* | Guztira | | **250** |
| | Neskak | | 253 |
| | Mutilak | | 247 |
| *Naturaren errealitatearen azalpena* | Guztira | | **250** |
| | Neskak | | 254 |
| | Mutilak | | 246 |
| *Ikerkuntza zientifikoaren funtsezko ezaugarrien azterketa* | Guztira | | **250** |
| | Neskak | | 253 |
| | Mutilak | | 247 |
| *Ezaguera zientifikoen erabilera erabaki-hartzeetan* | Guztira | | **250** |
| | Neskak | | 255 |
| | Mutilak | | 245 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009 eta 2013.

## Rs1.2.5.2 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

| | HASIERA Errendimendu maila | | | ERDIA Errendimendu maila | | | AURRERATUA Errendimendu maila | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak |
| 2009 | **17,0** | 14,0 | 19,9 | **52,6** | 52,7 | 52,5 | **30,4** | 33,3 | 27,6 |
| 2013 | **25,6** | 20,9 | 29,9 | **54,7** | 57,1 | 52,4 | **19,8** | 22,0 | 17,7 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009 eta 2013.

## Rs1.2.5.3 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleek *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).**

| | 2009 | 2013 |
|---|---|---|
| A Publikoa | 237 | 230 |
| B Publikoa | 238 | 222 |
| D Publikoa | 247 | 233 |
| A Itunpekoa | 274 | 259 |
| B Itunpekoa | 248 | 236 |
| D Itunpekoa | 256 | 241 |
| Guztira | 250 | 236 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009 eta 2013.

## Rs1.2.5.4 taula:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.**

| | | Ikasle % | | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2009 | 2013 | 2013 | | |
| ISEK | Maila baxua | 14,6 | **17,0** | 36,2 | 50,4 | 13,4 |
| | Maila ertain baxua | 23,4 | **24,9** | 30,3 | 54,1 | 15,6 |
| | Maila ertain altua | 28,0 | **26,9** | 22,7 | 55,4 | 21,8 |
| | Maila altua | 34,0 | **31,1** | 18,4 | 56,7 | 24,9 |
| Egokitasuna | Adina bat dator ikasmailarekin | 92,7 | **92,6** | 23,3 | 55,7 | 21,0 |
| | Adina **EZ** dator bat ikasmailarekin | 7,3 | **7,4** | 53,9 | 41,0 | 5,1 |
| Titulartasuna | Publikoa | 50,2 | **50,2** | 28,7 | 53,8 | 17,5 |
| | Itunpekoa | 49,8 | **49,8** | 22,3 | 55,5 | 22,1 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrigorrezko ikasketak bukatu **gabe** | 3,3 | **3,6** | 24,7 | 54,3 | 20,9 |
| | Derrigorrezko ikasketak | 12,9 | **14,2** | 25,8 | 55,4 | 18,9 |
| | Batxilergoa, HZ | 34,6 | **36,0** | 25,8 | 54,2 | 20,0 |
| | Goi mailako ikasketak | 41,0 | **46,3** | 25,2 | 55,2 | 19,5 |
| Jaioterria | Autoktonoa | 94,7 | **94,8** | 25,0 | 54,7 | 20,2 |
| | Emigratzailea | 5,3 | **5,2** | 35,5 | 54,6 | 9,9 |
| Familia-hizkuntza* euskara | Probaren hizkuntza euskara | 97,3 | **97,0** | 17,4 | 54,5 | 28,1 |
| | Probaren hizkuntza gaztelani | 2,7 | **1,9** | 14,6 | 53,9 | 31,5 |
| Familia-hizkuntza* euskara **EZ** | Probaren hizkuntza euskara | 55,8 | **80,4** | 31,7 | 55,1 | 13,3 |
| | Probaren hizkuntza gaztelani | 44,2 | **19,1** | 14,3 | 53,3 | 32,4 |

*2009. urtean, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009 eta 2013.

## Rs1.2.5.4 grafikoa:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza. 2013. urtea.**




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2013.